

# HIRUGARREN MUNDUA

## H. Kissinger Beltzak Ikusten

Kissingerek beltzak ikusi dituela esatean, politikazko egoera txarrean dagoela, azken aldian honen izarra gainbehera datorrenik ez dugu, oraingoan, adierazi nahi.

Afrikan egon berria dela esan nahi dugu bakarrik. Kissingeren ibilaldi hau esanguratsua da, nazio arteko politikaren aztertzaileek diotenez.

Azken urte hauetan Ekialdetik ibili ondoren, Afrikako politikari heldu nahi dio orain Kissingerek. Vietnameko baketze ostean, Asia galdurik du Ipar Amerikak. Ekialde Hurbilean, Israelekin eta, hor dabil "petits pas" delako politika aurrera atera nahian. Eta Afrikan?

Angolan, sobietarren eta kubatarren laguntzaz, M.P.L.A. nagusitu delarik, larri dabil Ipar Amerika, sobietarren influentziaren beldur. Beldur ho-

rretzek eraman du Kissinger Afrikari buruzko ameriketar politika osoki aldatzera.

1969an, Hego aldeko Afrikaz Kissinger berak zuen politika, bazterturik gelditu da oraingo ibilaldi hone-tan. Erregimen zuriak (koloniak) luzaroan iraungo zutela uste bide zuen Kissingerek. Erregimen horitxek lagundu behar zirela erabaki zuten, luzaroan bederen beltzek agintez jabetuko ez zirelakoan. Asmo horrekintxe, nahiz eta agerian razismoaren eta apartheid-en aurka mintzatu, azpitik gobernu horik politikaz aislatu gabe eta ekonomiaz baztertu gabe geldi zitezten saiatu izan da Amerika. Gaur egun, Angolakoaren ondoren, politika horren hutsa ikusi da, eta politika hori lurperatzea erabaki du Kissingerek. 180 graduko jira egin du honen politikak.

Sobiet Batasunari Hego aldeko Afrikaren bideak mozteko asmoaz joan da Kissinger. Interes ekonomikoak eta interes estrategikoak daude lurralde horietan. Lehen ekaietan aberats dira eremu horiek: urrea, diamantea, uranio, beruna, etab. Aztarnategi handi pila bat dago hor. Bestalde, Atlantiko Beheko eta Ozeano Indiko itsasoetako petrolio bideak hortik kontrola daitezke.

Ipar Amerikaren kanpoko politikan, Hego aldeko Afrika ezin da inolaz ere Sobietarren eskutan utzi. Africa beltz bat gorri bat baino hobe da. Behar den prezioa jarritz ere, beltzen alde doa Kissingeren oraingo politika. Argi eta garbi esan du horixe bera Zambiakoko huriburuan, "Lusakako Manifestua" bezala ezagutua den hitzaldian. Prezio hori ordaindu behar dutenak, Hego aldeko Afrikako aginte zuriak dira, Rodesiakoa eta Namibiako lehenengo, eta geroago —noiz ez dakigula— Hego Afrikakoa. Minoria zuriak afrikatar nazionalismoari opaltzen dizkio Kissingerek. Esan bezala, ez noski Ipar Ameriketa apartheid-en aurka dagoelako, baizik ere jokamolde berri honekin sobietarren eragina gutitu eta gerrilla progresistari lurra jango diola pentsatzen duelako.

Beltzen alde eta kanpoko influentzien kontra agertuz, Afrikako gobernu moderatuak eta "gogor" zenbait ere bereganatu dituela uste du Kissingerek. Zurien aurka dauden Mobutu bat, Senghor bat eta pozik egongo dira, noski. Hala ere, Nigeriak eta Ghanak ez dute Kissinger hartu nahi izan, Moskuren aholkuz.

Joan Mari Torrealday

# FUNDICIONES ARRIARAN, S.A.

LABE  
ELEKTRIKOTAN  
EGINIKO ALTZAIRU BEREZIAK,  
TXATAL  
MOLDATUTAN

LAZKAO  
(Gipuzkoa)  
tel. berria 881200



## MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
Muelle de Uribitarte, 15 BILBO-9